



Azpeitiko Udala

Azpeitiko Udala

Zbk. / Nº 2026-2119

Data / Fecha 2026/05/06 14:00

Irteera / Salida

**AZPEITIKO UDALAREN ETA AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI KOOPERATIBA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA LOIOLAKO IGNAZIO ETORBIDEA, 26KO ERAIKINEAN EMATEN DEN HEZKUNTZA JARDUERA LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZA BIDERATZEN DUENA.**

Azpeitian, sinadura elektronikoaren datan

**ELKARTUTAKOAK**

Alde batetik, **Nagore Alkorta Elorza, Azpeitiko Udaleko Alkatea, NA** zk. 72.471.832-M duena

Bestetik, **Estibaliz Carrera Lazcano, NA** zk. 72452242B duenak

**ORDEZKARITZA**

Lehenengoak **AZPEITIKO UDAL**aren izenean eta haren ordezkari gisa dihardu, Udalbatzak 2026ko martxoaren 3an egindako bilkuran hartutako akordioa kontuan izanik.

Bigarrenek, **AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI KOOPERATIBA ELKARTEKO** ordezkari gisa, **I.F.Z. F20525747** eta ikastetxearen goitza honakoa izanik: **Loiola Ignazio etorbidea, 26.**

Ordezkaritza hori ondoren zehazten den eskrituraren bitartez emana du:

- **NOTARIOA:** FRANCISCO JAVIER LAZARO EUSA
- **ESKRITURAREN LEKUA:** AZPEITIA
- **ESKRITURAREN DATA:** 2015-06-9
- **PROTOKOLO ZK.:** 586

**Aurrekariak**

Azpeitiko Udalak, bere jarduera publikoaren baitan, udalerriko hezkuntza-baldintzak hobetzea eta ikastetxeen arteko oreka sustatzea du helburu, ikasleen baldintzak babestuz eta kalitatezko hezkuntza-eskaintza bermatzeko.

Udalaren borondatea izan da udalerrian hezkuntza-politika sustatzaile bat garatzea, gainerako administrazio publikoek hezkuntza arloan dituzten eskumenak osatzeko, eta hezkuntza-sistemaren funtzionamendu egokia bermatzen laguntzeko.

Udalak jarduketa hau Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 16.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera garatzen du, herritarren bizi-kalitatea hobetzea helburu duten jarduerak sustatzeko duen gaitasunaren baitan.

Jarduketa honek sustapen-izaera du, eta ez du hezkuntza-sistemaren antolaketan edo zerbitzu publikoaren kudeaketan esku-hartze zuzena suposatzen;



## Azpeitiko Udala

aitzitik, interes orokorreko helburuak lortzera bideratzen da, hezkuntza-baldintzak hobetuz eta udalerriko kohesio soziala indartuz, eta beste administrazio publikoek hezkuntza arloan garatutako jarduerekin bateragarria da, bikoiztasunik sortu gabe.

Testuinguru honetan Azpeitiko Udalak eta Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatiba Elkarteak 2008ko azaroaren 13an lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten hezkuntza arloko lankidetzeta-esparrua ezartzeko, eta ordutik Udalak sustapen-jarduerak garatu ditu udalerriko ikastetxearen alde.

Udalak, 2026-2028 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren baitan, Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatiba Elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematea aurreikusi du, udalerriko ikastetxeen arteko baldintzak parekatzeko, instalazioei eta zerbitzuei dagokienez, eta udalerriko ikasleen baldintzak babestuz hezkuntza-eskaintza orekatu eta kalitatezkoa bermatzeko.

Dirulaguntza honen bidez, besteak beste, honako gastuak finantzatu ahal izango dira: hornidura-gastuak (ura, argia eta berokuntza), eraikinaren mantentzea eta garbiketa.

Laguntza hau baldintzatuta dago ikastetxe onuradunak bere instalazioak egoera egokian mantentzera eta energia-eraginkortasuna hobetzeko neurriak ezartzera, jarduketa horiek udalerriko ikasleen baldintzak hobetzen baitituzte, eta hezkuntza-ingurune seguru, egoki eta jasangarriagoa sustatzen baitute. Horrez gain, neurri horiek baliabideen erabilera eraginkorragoa ahalbidetzen dute, eta bat datoz administrazio publikoek sustatzen dituzten jasangarritasun- eta efizientzia-helburuekin.

Dagokigun Dirulaguntzen Plan Estrategikoak urte bakoitzean, gehienez, 196.000 euroko dirulaguntza zuzena aurreikusten du, eta 2026ko ekitaldirako aurrekontuan 196.000 euroko dirulaguntza izenduna jasota dago Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatiba Elkartearen alde.

Zuzeneko dirulaguntza hau Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) artikuluan aurreikuistakoaren arabera ematen da, aurrekontuan izendun gisa jasota dagoelako.

Hitzarmen honen xedea da Azpeitiko Udalbatzak 2026ko martxoaren 3an egindako bilkuran onartutako lankidetzeta-hitzarmena formalizatzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hitzarmenak lau urteko indarraldia izango du. Nolanahi ere, hitzarmenak izaera instrumentala du, eta bere xedea urtean-urtean eman daitezkeen dirulaguntzen baldintza orokorrak ezartzea da, etorkizuneko ekitaldietarako eskubiderik sortu gabe; dirulaguntzak, beraz, urte bakoitzean aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa egotearen mende egongo dira.

Dirulaguntza hauek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta aplikatzekoa den gainerako araudian xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Azpeitiko Udaleko Udalbatzak, 2026ko martxoaren 3ko bilkuran, lankidetzeta-hitzarmen hau onartu zuen eta Alkate-Lehendakaria baimendu zuen hura sinatzeko.



Azpeitiko Udala

Azal dutako guztiagatik, bi alderdiek hitzarmen hau sinatzea erabaki dute. Hona hemen hitzarmenaren

## KLAUSULAK

### 1.- Helburua:

Hitzarmen honen xedea Azpeitiko Udalak Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatiba Elkartearen aldeko zuzeneko dirulaguntza bideratzea da, Loiolako Ignazio etorbidea, 26an dagoen eraikinen funtzionamendu- eta mantentze-gastuei aurre egiteko.

Dirulaguntzaren helburua da udalerriko ikastetxeen arteko instalazio eta zerbitzuen baldintzak parekatzea, eta, horren bidez, ikasleen baldintzak babestea eta hezkuntza-eskaintza orekatu eta kalitatezkoa bermatzea.

### 2.- Alderdien konpromisoak

Azpeitiko Udalak hitzarmen honetan aurreikusitako dirulaguntza emango dio Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatiba Elkarteari, funtzionamendu- eta mantentze-gastuei aurre egiteko, betiere hitzarmen honetan eta aplikatzekoa den araudian ezarritako baldintzen arabera.

Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatiba Elkartek, bere aldetik, jasotako dirulaguntza hitzarmen honen xedera bideratuko du, eta jarduera gauzatu dela eta dirulaguntzaren helburua bete dela egiaztatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztuko du. Horretarako, urte bakoitzaren amaieran memoria bat aurkeztu beharko du, egindako jarduerak, egindako gastuak eta dirulaguntzaren aplikazioa zehaztuz, baita instalazioen egoerari eta energia-eraginkortasunari buruzko informazioa ere.

Era berean, ikastetxeak Udalak eskatzen dion gainerako dokumentazio justifikatzailea aurkeztu beharko du, eta diruz lagundutako jardueren zabalkunderako erabiltzen diren material eta euskarrietan Azpeitiko Udalaren finantzaketa behar bezala aitortu beharko du.

### 3.- Indarraldia eta finantzaketa

Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Hitzarmen honen baitan, urte bakoitzerako gehienez 196.000 euroko dirulaguntza aurreikusten da.

Dirulaguntza ematea baldintzatuta egongo da urte bakoitzean aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa egotearen menpe.

2026ko ekitaldirako, laguntza Udalaren aurrekontuko partida honen kargura finantzatuko da: 1.0300.481.323.40.01 transferentzia arruntak, Ikasberri.

### 4.- Emakida prozedura

Dirulaguntza hau zuzeneko emakidaren bidez emango da, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legea, azaroaren 17koa-ren 22.2.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aurrekontuan izendun gisa jasota dagoelako.

Ondorioz, publizitate- eta lehia-printzipioak ez dira aplikagarriak.



Azpeitiko Udala

### **5.- Gastu diruz lagungarriak**

Diruz lagundu ahal izango diren gastuak honako hauek izango dira:

- Ur, argi eta berogailuaren kontsumoak
- Eraikinaren mantentze-lanak
- Eraikinaren garbiketa

### **6.- Onuradunaren betebeharrak.**

Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatiba Elkarteak, onuradun gisa, honako betebeharrak izango ditu:

#### **a) Dirulaguntzaren helburuei lotutako baldintza espezifikoak:**

Bere instalazioak egoera egokian mantentzea.

Energia-eraginkortasuna hobetzeko neurriak ezartzea.

Urte bakoitzaren amaieran, memoria bat aurkeztu beharko du, instalazioen egoera eta energia-eraginkortasunaren arloan hartutako neurriak eta lortutako emaitzak jasoz.

#### **b) Baldintza orokorrak**

Aurrekoaz gain, onuradunak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko ditu, eta bereziki honako hauek:

- Dirulaguntzaren xedea betetzea eta jarduera gauzatzea.
- Dirulaguntza eman duen organoaren aurrean jarduera gauzatu dela eta baldintzak bete direla justifikatzea.
- Udalak edo dagokion kontrol-organoek egin ditzaketen egiaztapen- eta kontrol-jarduketan mende jartzea.
- Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza edo baliabiderik jasoz gero, hori Udalari jakinaraztea.
- Jasotako funtsen erabilera egiaztatzen duten agiriak gordetzea.
- Dagokionean, jasotako funtsak itzultzea, legez aurreikusitako kasuetan.

### **7.- Justifikazioa eta laguntzaren ordainketa.**

Onuradunak beharrezkoa izango du dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikulua eta honekin bat datorren gainontzeko araudiak jasotako baldintzak egiaztatzea udalaren sarrera erregistroan. Baldintza horiek betetzea ezinbestekoa izango da ordainketa egiteko.

Dirulaguntza hiru hilabetez behin ordainduko da, baina aurretik, jarduera egin izanaren justifikazioa aurkeztu beharko da:

- a) Eskaera.



Azpeitiko Udala

b) Zerga obligazioa eta Gizarte Segurantzakoak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak, edota, informazio hori jasotzeko Udalari baimena ematen zaion dokumentua.

c) Gastuen memoria eta ordain egiaztatagiriak, ikastetxearen idazkariaren ziurtagiriaren bidez.

d) Urteko diru-sarreraren eta gastuaren balantze ekonomikoa (urtea amaitu ondoren hurrengo urteko lehen hiru hilabeteko eskaerarekin batera).

e) Urtea amaitu ondoren 5.a) atalean jasotako memoria bat aurkeztu beharko du, instalazioen egoera eta energia-eraginkortasunaren arloan hartutako neurriak eta lortutako emaitzak jasoz, aurreztuko den gastua zehaztuz.

Dokumentazioa aurkeztu eta gehienez hilabeteko epean egingo da ordainketa.

#### **8.- Bateragarritasuna**

Dirulaguntza hau bateragarria da beste dirulaguntza, laguntza edo baliabideekin, baldin eta guztien baturak ez badu jardueraren kostua gainditzen.

Onuradunak jasotako beste laguntzak jakinarazi beharko ditu, eta justifikazioan adierazi beharko dira jatorria, zenbatekoa eta erabilera.

#### **9.- Publizitatea**

Udalak onartutako laguntzak legezko publizitatea izango du. Hitzarmen honen babesean emandako dirulaguntza udalaren web orrian argitaratuko da, eta baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere. Horrez gain Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalean (DDN) ere argitaratuko da, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 18. eta 20. artikuluen arabera

#### **10.- Laguntzaren itzulketa.**

Ikastetxe onuradunak jasotako laguntza eta interesak itzuli egin beharko ditu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 36. eta 37. artikulua jasotako kasuak ematen badira, eta itzultze prozedura legearen 41 eta 43. artikulua jasotakoa izango da.

#### **11.- Dirulaguntzari ezargarri zaion erregimen juridikoa.**

Dagokigun dirulaguntza hitzarmen honen bidez arautuko da, eta baita dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Lege hau garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan eta Udalak 2012ko apirilaren 3an onartutako diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailean ere.

#### **11.- Zehapen araubidea**

Diruz lagundutako erakundeak diru-laguntzen arloan egin ditzakeen arau-hausteak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. tituluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren IV. tituluan ezarritakoaren arabera mailakatu eta zehatuko dira.

Eta, hitzarmen honetan ezarritakoarekin bat datozela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, jarraian agertzen direnek



Azpeitiko Udala

honelako hiru ale sinatu dituzte, jatorrizkoak, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.

<p><b>AZPEITIKO UDALAREN IZENEAN</b></p> <p><b>Nagore Alkorta Elorza</b></p>	<p><b>AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI KOOPERATIBA ELKARTEAREN IZENEAN</b></p> <p><b>Estibaliz Carrera Lazcano</b></p> 
--	---



EKS | CSV: ESKU9f269be0-7f0d-444f-bdec-b4d7f01e93ed

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01810>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026DIRU0006-Hitzarmena/Hitzarmena ()

**Digitalki sinatua:**



Azpeitiko Udala

**Azpeitiko Udala**

Ordezkaria

**Nagore Alkorta Elorza**

**Alkatea**

**Data:** 2026/05/06 13:00:50